

### 3.3.1. Banaka nahiz taldeka, tutoretza-funtzioa betetzen dela bermatzea.

Tutore-eginkizuna tutore bakoitzaren esku dago, orientatzailearen edo aholkulariaren orientazioarekin; ikastetxean ez dago horretarako irizpide bateraturik.

Ikastetxean irizpide bateratuak daude ezarrita tutoreen esku-hartzeari begira, eta tutoretza-planean zehaztuta daude. Talde-tutoretzetako esku-hartzeak eta banakako tutoretzen ezaugarriak jasota daude.

Tutoreak eta beste eragile batzuk familiekin komunikatzen direla bermatzen da.

Tutore-ekintzaren bidez, familiei orientazioa ematen zaie seme-alabei garapen pertsonalean eta hezkuntza-garapenean laguntzeko, eta eskolaren eta familiaren arteko ekintza koherentea eta osagarria lortzeko.

Tutoretza-plana ezarri da ziklo, maila eta abarretan. Tutoretza-planak ikastetxe guztirako irizpide komunak ditu, bai eta jarraitutasuna eta mailen arteko koherentzia ere.

Zuzendaritzak ebaluatzeko eta hobekuntzari begira konklusioak ateratzeko prozedurak sustatzen ditu.

Jardunbide egokiak identifikatu dira, eta ikastetxeko irakasleen artean zabaldua daude. Irakasle guztiek betetzen dute tutore-ekintza, eta oso lagungarria da ikasleen oinarritzko gaitasunak garatzeko eta eskola-emaitzak nahiz eskolako giroa hobetzeko.

Ikastetxeak tutore-ekintzaren ebaluazioa sistematizatu du. Tutoretza-plana aldian behin berrikusten eta ebaluatzen du, helburuak lortzeko eraginkortasunaren hobekuntza bilatzeko.

Tutoretza-plana ikastetxeko gainerako antolaketa-dokumentuekin koherentea da, eta elkarren osagarri dira. Hobekuntzak dokumentuetan jasotzen dira.

Eskola-komunitateak aintzat hartzen du tutoretza-planak ongizateari begira duen eragina, hezkuntza-aurrerabidearen eta bizikidetzaren positiboaren mesedetan.

Ikastetxea erreferentea da esparru horretan.

### 3.3.2. Ikasleak akademikoki, profesionalki nahiz pertsonalki orientatzeko bitartekoak jartzea.

Ikasleen orientazioa ikastetxeko aholkulari/orientatzailearen eskuetan dago.

Aholkulari/orientatzaileen eta tutoreen arteko lan-ildoak azken horien eskaeren arabera dira.

Aholkulari/orientatzaileek eta irakasle espezialistek esku hartzeko irizpide orokorrak zehaztu ditu.

Tutoreak eta aholkulari/orientatzaileak elkarrekin koordinatuta aritzen dira lanean.

Aholkulari/orientatzaileen eta irakasle espezialisten esku hartzeko irizpideak berrikusten dira, egoerei egokitu, esku-hartzea eraginkorragoa izan dadin. Aldian behin ebaluatzen dira, gero ondorioak atera eta hobetzeko proposamenak egiten dira.

Zuzendaritzak prozedurak ezarri ditu ikaslearen orientazioa kide anitzeko talde baten esku geratzen dela bermatzeko (tutorea, gainerako irakasleak, ikastetxeko aholkulari/orientatzailea eta familia).

Ikastetxeak ikasleei orientazioa emateko prozedurak bermatu, sistematizatu eta dokumentatu egiten ditu, aldian behin ebaluatzen ditu, eta etengabe abian jartzen ditu hobekuntzak, jarduera eraginkorragoak bultzatzeko.

Ikasleentzako orientazioaren alorrean, hezkuntza-komunitateak eta kanpoko eragileek ikastetxearen jardunbidea ezagutzen eta balioesten dute.